

1. Lantegi Batuak konpromisoa zuzentasunarekin eta gardentasunarekin.

Lantegi Batuak irabazi-asmorik gabeko erakundea da, xede sozial argia duena: desgaitasuna duten pertsonen inklusio soziolaborala sustatzea. Konpromiso hori hainbat baliotan oinarrituta dago, hala nola zintzotasunean, legezketasunean, justizian eta erantzukizunean.

Hainbat interes-talderekin ditugun harremanak konfiantzan eta gardentasunean oinarritzen direla bermatzeko, Iruzzarren aurkako Plana dugu, gure jardueretan kudeaketa zuzena eta arduratsua ziurtatzen duten printzipioak, kontrolak eta mekanismoak biltzen dituena.

Dokumentu hau erakundearen Iruzzarren aurkako Plan orokorraren laburpena da, hirugarrenei ezagutaraztekoa.

Iruzzarren aurkako Plana printzipio hauetan oinarritzen da:

1. Edozein iruzur-, ustelkeria- edo abusu-mota **prebenitzea**, kontrol eta mekanismo egituratuen bidez.
2. Egon daitezkeen irregulartasunak azkar **detektatzea**, auditoretzen, arrisku-analisien eta barne-komunikabideen bidez.
3. Edozein iruzur-zantzuren aurrean **jardutea**, inpartzialtasuna, konfidentzialtasuna eta trazabilitatea bermatuz.
4. Informatzaileak errepresalietatik **babestea**.
5. Funtz publiko eta pribatuak erabiltzean, kudeatzean eta zuritzean zuzentasuna **ziurtatzea**.
6. Gardentasuna eta gobernantza ona **bermatzea**.

Iruzzarren aurkako Plana 2026ko urtarrilean onartu zuen Araudia Betetzeko Batzordeak, erakundearen kontrol-organoak, hain zuzen ere. Harrezkero, araudia betetzeko programaren eta sistemaren barruan dago, zeina 2016tik dagoen indarrean eta Lantegi Batuak Fundazioak ezarritako mekanismoen bidez berrikusten den.

2. Iruzzarren aurkako Planaren irismena.

Iruzzarren aurkako Plana aplikatzen zaie:

- Lantegi Batuak osatzen duten pertsona guztiei.
- Gurekin lan egiten duten edo laguntzen diguten hirugarrenei: hornitzaileak, enpresa kontratistak, erakunde aliatuak, eta erakunde publiko eta pribatuak.
- Funtsezko prozesuei, besteak beste: kontratazioa, erosketak, zerbitzu-ematea, dirulaguntzen kudeaketa, bezeroekiko harremana eta informazioaren erabilera.

Gure kanpoko interes-taldeentzat, plan honek bermatzen du gure prozesu guztiak zuzentasunaren, trazabilitatearen eta araudia betetzearen irizpideei jarraikiz garatzen direla.



3. Zer jotzen dugun iruzurtzat eta ustelkeriatzat.

- Iruzurra: bidegabeko etekina lortzeko nahita egiten diren ekintzak (dokumentuak aldatu, kontabilitatea manipulatu, baliabideak behar ez bezala erabili, dirulaguntzetan iruzur egin, etab.).
- Ustelkeria: norberarentzako edo hirugarrenentzako abantailak lortzeko botere-abusua (eroskeria, influentzia-trafikoak, lehiaren aurkako jardunbideak, etab.).

Lantegi Batuak ez du inola ere onartzen edozein motatako iruzurrik edo ustelkeriarik.

4. Erakundearekin harremana duten hirugarrenetikiko konpromisoak.

Gure harremanetan, honako hau bermatzen dugu gure zerbitzu eta prozesuei dagokienez:

- Zorroztasunez eta profesionaltasunez egiten dira.
- Kalitate-, segurtasun- eta trazabilitate-kontrol ziurtatuak dituzte (ISO 9001, 14001, 45001, 27001 eta UNE 19601).
- Behar bezala dokumentatzen dira, gardentasuna ziurtatzeko.
- Manipulatzeko, faltsutzeko edo kontratua ez betetzeko arrisku oro saihesten dute.



Lantegi Batuak haxe exijitzen die bere enpresa laguntzaileei:

- Haiei begirako Jokabide-kodea ezagutzea eta betetzea.
- Erakundearen estandarrekin bat datozen printzipio etiko eta sozialekin konprometituta egotea.
- Kontratazio- eta hautaketa-prozesu gardenak izatea, irizpide objektiboetan oinarrituak.
- Eroskeria, opari desegokiak, jardunbide desleialak edo jarduera irregularrak edo kolusiozkoak erabat gaitzestea.

Gainera, arreta egokirako prozedurak aplikatzen ditugu, araudia betetzen dela egiaztatzen dugu eta arrisku-adierazleak monitorizatzen ditugu, jarduerak hala eskatzen duenean.

Administrazio edo erakunde publikoekin lankidetzan, honako hauek bermatzen ditugu:

- Indarrean dagoen legeriaren arabeko jarduerak.
- Funts publikoen kudeaketa arduratsu, garden eta trazagarria.
- Dirulaguntzen, kontratazio publikoaren eta zuriketa ekonomikoaren arloko betebeharrak betetzea.
- Ustelkeriaren aurka Borrokatzeko 2025eko Estatuko Planarekin lerrokatutako iruzurra prebenitzeko neurriak, salatzaileen babesa, funtsen berreskurapena eta zuzentasun-kultura barne.

5. Arrisku-alor nagusiak eta nola kontrolatzen ditugun.

Iruzurraren aurkako Planak arrisku potentzialak identifikatzen ditu alor hauetan:

- Kontratazio publikoa eta pribatua.
- Erosketak eta hornitzaileekiko harremana.
- Ekonomia- eta kontabilitate-kudeaketa.
- Europako dirulaguntzak eta funtsak.
- Informazioaren segurtasuna eta datuen babesak.
- Langileak hautatzeko prozesuak.
- Eragiketak hirugarrenekin.


Lantegi Batuakek betetze-sistema egituratua du, honako hauek barne hartzen dituena:

- Araudia Betetzeko Programa.
- Araudia Betetzeko Batzordea (ABB), kontrol-organo gisa.
- Etika- eta Jokabide-kodea: jokabide-printzipioak eta -arauak.
- Etikari, betetzeari eta datuen babesari buruzko aldizkako prestakuntza.
- UNE 19601 ziurtagiria.
- Arriskuen maparen etengabeko ebaluazioa.

Era berean, arrisku bakoitzerako, Lantegi Batuakek berariazko neurriak ditu, hala nola:

- Zereginak bereiztea.
- Finantza-kontrolak eta eragiketen berrikuspena.
- Erosketa-batzordea, gardentasuna bermatzeko.
- Kolutziozko edo hitzartutako jardunbideak debekatzea.
- Konfidentzialtasun-akordioak eta zuzentasun-klausulak sinatzea, jardueraren arabera.
- Barne- eta kanpo-auditoretzak.
- Pribatutasun- eta zibersegurtasun-protokoloak.
- Interes-gatazkak adieraztea eta kudeatzea.
- Iruzurraren aurkako kontrolak dirulaguntzetan eta erosketetan.
- Arriskuen maparen aldizkako ebaluazioa.

Neurri horiek etengabe eguneratzen dira, eta bai erakundeak berak bai erakunde independenteei ikuskatzen dituzte.



6. Irregularitasunak antzemateko eta horien aurrean jarduteko mekanismoak.

Lantegi Batuak balizko desbideratzeak identifikatzeko barne-prozesuak ditu, besteak beste:

- Eragiketen berrikuspen sistematikoak.
- Aldizkako auditoretzak.
- Arrisku-adierazleak alor kritikoetan.
- Hornitzaileen jarraipena eta hirugarrenen gaineko kontrolak, jarduera zehatzetan.

Kanalan kanala

Komunikazio-kanal seguru eta konfidentziala dugu jokabide irregularrak jakinarazteko edo betetzearekin lotutako zalantzak helarazteko. Kanalan izeneko, jakinarazpenetarako kanal etikoa da. <https://kanalan.canaletico.app/inicio>

Hauxe bermatzen dugu:

- Konfidentziasuna.
- Errepresalien debekua.
- Jakinarazpen bakoitzaren azterketa inpartziala.
- Ebazpen dokumentatua eta jarraipena.

Kanal honek informatzaileak babesteari buruzko 2/2023 Legea betetzen du.

7. Iruzur-susmoa edo -ebidentzia dagoenean jarduteko prozedurak.

Balizko irregularitasun bat antzematen denean:

- Barne-ikerketarako prozedura independentea abiatzen da.
- Gertakariak aztertzen dira, inpartzialtasuna eta inplikaturako pertsonen eskubideak bermatuta.
- Prozesuak, ebidentziak eta ondorioak dokumentatzen dira.
- Neurri zuzentzaileak edo diziplinazkoak aplikatzen dira.
- Agintariei jakinarazten zaie, hala badagokio.
- Kontrolak berrikusten dira, egoera errepikatzea saihesteko.

8. Gardentasuna, etengabeko hobekuntza eta konpromisoa.

Iruzzurraren aurkako Plana aldizka berrikusten du Araudia Betetzeko Batzordeak, honako hauek txertatzeko:

- Lege-aldaketak
- Mehatxu edo arrisku emergente berriak
- Auditoretzen eta kontrolen emaitzak
- Gomendio erregulatzaileak
- Estatu-mailako eta nazioarteko jardunbide egokiak

Gure konpromisoa zuzentasun-sistema sendo, eguneratu eta konfiantza-estandar gorenekin lerrotatuari eustea da, gurekin harremanetan dauden erakunde guztiekin harreman garden, etiko eta segurua dugula bermatzeko.